

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuak Nafarroako irudi turistiko erakargarria agertzen duten ikasleen zortzi lan saritu ditu

*Barcina Lehendakariak Nafarroaren Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldietako batean banatu ditu sariak.*

Martes, 26 de noviembre de 2013

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak "dbr3. Nafarroaren Irudi Turistikoa" eskoletako ikasleen arteko lehen lehiaketako zortzi sari banatu ditu astearte honetan. Foru Komunitatearen irudi turistiko erakargarria agertzen duten eta, Nafarroa bisitatzera animatzeko, beste eskualde eta herrialde batzuetako haur eta gazteei zuzenduriko lanak saritu dira.



Barcina Lehendakaria eta Iribas kontseilaria saritutako ikasleekin.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiaren Tronu Aretoan egin da, eta Nafarroaren Eguna ospatzeko antolatu diren ekintzetako bat izan da. Bertan izan da José Iribas Hezkuntza kontseilaria ere.

Sei sari eta bi accesit eman dira, hainbat kategoriatan banatuta, lehiaketara aurkeztu diren 115 lanetatik onenak direnak bereizteko. Lanek Foru Komunitateko alderdi turistiko jakin edo orokor bati egiten diote erreferentzia, eta promozio gisa aurkeztu dira kartelak, liburuxka tolesgarriak, ikus-entzunezko proiektuak edo multimedia-produktuak.

Proiektu irabazleak urtarrilean, Madrilan, izango den 2014ko FITUR Turismoaren Nazioarteko Azokako Nafarroaren standean jarriko dira ikusgai, egileak bertan direla.

## Saritutako lanak

**Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko** ikasleei zuzenduriko kategorian bi lehenengo sari banatu dira. Alde batetik, Ribaforadako San Bartolomé ikastetxe publikoko Julián Cornado Martínezek jaso du saria, Nafarroari eta Nafarroako baliabide turistiko



Saritutako lanak.

nagusiei buruz egin duen argazki eta audiodun ikus-entzunezko lanagatik. Lana Vanesa Ortiz Fernández irakasleak gainbegiratu du.

Lehen saria eskuratu du, baita ere, Barañaingo Santa Luisa Marillac ikastetxeko Sergio Valencia Aldunate eta Alejandro Zardoya Badía ikasleek osaturiko taldeak. Kartel batean, Foru Komunitateko paisaiari, gastronomiari eta kulturari loturiko testu eta argazkiekin egindako Nafarroako mapa egin dute. Lana Idoia Ordorika Ozkoidi irakasleak zuzendu du.

Bigarren saria Barañaingo Santa Luisa Marillac ikastetxeko Claudia Martínez Rodríguez eta Leyre Antoñanzas Fernández ikasleek jaso dute, beste probintzia batzuek Nafarroako baliabide turistikoak nabarmentzen dituzten liburuxka egiteagatik. Hirugarren saria ere Santa Luisa Marillac ikastetxeko Iñigo Ancizu Gorena eta Ismael Segura Abadiano ikasleen taldeak jaso du; Nafarroa bost egunez bisitatzeko proposamenen liburuxka bat egin dute. Bi lanak Idoia Ordorika Ozkoidi irakasleak gainbegiratu ditu.

**DBHko 1. eta 2. mailetakoko** ikasleen kategorian, Iruñeko Sagrado Corazón ikastetxeko Santiago Legaristi Royo eta Samuel Cibiráin Royok irabazi dute lehen saria. Nafarroako hiriburuko monumentu eta parkeak erakusten dituen ikus-entzunezko lana egin dute, skater baten ikuspuntutik (monopatinean ibilita). Lana Natalia Royo Iturrate irakasleak zuzendu du.

Bestalde, **DBHko 3. eta 4. mailetakoko** ikasleen kategoriako lehen saria Azkoiengo Ribera del Arga institutuko Raúl Salvatierra Tápiz ikasleari egokitu zaio. Nafarroaren eskaintza turistikoa merindadeka azaltzen duen liburuxka inprimatua aurkeztu du, merindade bakoitzaren bereizgarri diren koloreak erabilita. Lana Emilio Garrido Cuevas irakasleak gainbegiratu du.

Amaitzeko, **acesitetako** bat Tuterako Griseras ikastetxe publikoko Andrea María Filip eta Catalina Puebla Coenen ikasleen lortu dute, Nafarroako marka turistikoaren logotipoaren bertsio bat agertzen duen kartela egiteagatik. María del Carmen Gascón Huguet irakaslea aritu da zuzendari lanetan. Bigarren accesita Barañaingo Santa Luisa Marillac ikastetxeko Gisela Itoiz Aranguren eta Irati López Imas ikasleentzat izan da; Foru Komunitateko baliabide turistiko nagusiak marraztuta agertzen dituen Nafarroako mapadun kartela egin dute. Lana Idoia Ordorika Ozkoidi irakasleak gainbegiratu du.

## Sariak

Kategoria bakoitzeko irabazleak, ikasleak eta irakasleak, 2014ko FITUR Turismoaren Nazioarteko Azokako Nafarroaren Eguna joango dira eta, gainera, ikasleek txartel bana jaso dute, lau pertsonarentzat, Nafarroako landetxe batean asteburu bat igarotzeko.

Bigarren saria eskuratu dutenek 2014ko otsailetik ekainerako denboraldian Baluarte Fundazioko ikuskizun batzuetara joateko lau sarrera jaso dituzte. Hirugarren sariarekin Los Arcosko abiadura-zirkuituan eskualdeko, estatuko zein nazioarteko lasterketa bat ikusteko lau sarrera eskuratu dira. Accesitekin 2013ko Gabonetan Baluarte Fundazioko ikuskizunetarako lau sarrera jaso dira.

Halaber, irakasle-tutoreek 2014ko otsailetik ekainera Baluarte Fundazioko ikuskizunetarako lau sarrera jaso dituzte, eta irabazleen ikastetxeek Nafarroari buruzko liburu sorta lortu dute liburutegirako.